

Fueroak eta askatasuna

Deia, 1977-07-21.

Joan den urtean ospatu genuen *Fueroak galdu* genituenareneko ehun-urteurrena.

Bigarren guda karlista ondorengo legea gogoratzen dugu (21-7-1876).

Igaz, alkateak izan ziren Bergaran egintza bat antolatu zutenak; gaur, garrantzi haundiagoa izango du: herriak hautatuak izan diren Euskal Parlamentariak izango dute Gernika bertan lan Biltzarre bat, eta hemen aztertuko dituzte Espainia-ko Gortetan gero azalduko dituzten arazoak.

Eta gainera, 1876ko lege honen aurkako protesta egingo dute. Hau oso ondo dago.

Baina hemen zerbait adierazi: nahi nuke bi kolpe haundi hartu zituzten gure Fueroak: bat 1839-an, eta beste hau 1876-an.

Eta, egitan, Fueroak adierazten duten Askatasuna, lehenengoarekin galdu genuen.

Sabin Aranak argitu zuen hau ondoen.

Honentzat, 1839ko guda galdu ondoren etorri zen Lege makurraz galtzen du Euskal Herriak Independentzia.

Lege honek jartzen ditu lehenengo aldiz Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Espainiako konstituzioaren azpian. Ordurarte, Espainiak berea zuen, eta Euskal Herriko lau herrialdeak (Hego-Euzkadiak ari naiz orain, noski) bakoitzak berea, baina Lege honen ondoren Espainia dira.

Hau da sustraizko Fuero edo Independentziaren galera.

Eta, zer da, orduan, 1876an galtzen duguna?

Ordu arte, euskaldunok ez gara soldaduzkara joaten, eta Espainiari ez diogu zerga edo inpuestorik ordaintzen; baina 1876go Legea pasa eta gero, espainol bezalaxe egin behar dugu.

Lehenengo aldiz gure historian.

Oraindik geratzen da zertxo bat: kontzieto ekonomikoa; azken hau, 1939an galdu genuen Bizkaian eta Gipuzkoan.

Hiru zatitan galdu ditugu, bada, Fueroak; bi kolpe handi, eta azken aitaturako hau.

Autonomia noraino burukatu, gauza taktikoa da.

Baina ona da gaur gogoratzea, Fuero osoak, Askatasuna dela.